

GRUFALOA

Ustiapen proposamen bat

2025


**ZINESKOLA dispositiboa ikaslearen PEAC delakoan sartzen da
(ADAGE)**



Albumaren egileak
J. Donaldson eta A.
Scheffler



Albumetik filmara



Filmaren
egileak

Ikasleendako helburuak:

- Zinemara joatea: **esperientzia kulturala BIZITZEA**
- Zineman ikusi(ko) duten GRUFALOA filma **ULERTZEA**
- Ahozko eta idatzizko hizkuntza (euskara) gaitasunak **LANTZEA**

Irakaslearendako helburuak:

Ulermena landu eta oztopo linguistikoen **ANTIZIPATZEA**:

- **Hiztegi berri eta bereziaren** identifikatzea eta aitzinetik lantzea
- **Egitura berri eta berezien** identifikatzea eta aitzinetik lantzea
- Ikasleak istorioaren **ulermen sakonera** eramatea (esplizitutik inplizitora)



Filmaren proiektzioa prestatzea

Hizkuntza lantzea filmaren ulermena errazteko hipotesien aitzinatzea



Afixa, trailerra eta albumaren azala ez dira erakusten!

1. urratsa:

Zinemaren esperientzia

2. urratsa:

**Albumaren hastapena
lantzea**

3. urratsa:

**Pertsonaien intentzioak
aztertzea**

4. urratsa:

**GRUFALOA irudikatzea eta
marraztea**

Zinemara joatea: esperientzia kultural kolektiboa

Zinema leku berezia da

Filma ikustea: Non ikusiko dugu? Nola pasatuko da? Arauak (argia itzaltzen da, isiltasuna, lasaitasuna, arreta...)

Hiztegia eta egituren finkatzea eta erranaraztea deskribatzeko, kontatzeko, esplikatzeko.

- Esperientziaren kronologia etapaka
- Ikuslearen portaera eta arauak zine gelan
- Zinemaren hiztegia
- Emozioak


KONTATZEA- DESKRIBATZEA- ESPLIKATZEA

OHARRA: saio hau ateraldiaren ondotik egiten ahalko da. Ikasleek ez badute ohiturarik zinemara joateko, klasearekin bizi izan duten esperientzian oinarrituko dira.

Zinemaren ateraldia nola pasatu da?

Ateraldiaren kronologia irudien laguntzarekin:

- Autobusa hartu dugu/oinez joan gira
- Gelara heltzea - Gelaren izena- Gela horren berezitasunak (afixak, pasabide bat, gelaren handitasuna...)
- Lekuan jarri: erdian, aitzinean, bazterrean, noren ondoan
- Argia itzali da, isiltasunean egon behar da, lasaitasunean, arreta...)
- Soinuaz inguratuak izan gira






JPhilippe Mercé

Materiala : Argazkiak (zinemaren aitzinaldea, autobusa, zinema gela, pertsonaiak), kartoina argazkiak gainean kolatzeko, aitzurrak edota ebakigailu bat, kola. Irakasleak galdegiten ahal die ikasleei figurinak etxetik ekartzea.

Maketa baten bitartez ateraldiaren kronologia eta araudia aipatzea ikasleekin.

Hiztegia eta egiturak lantzea

Ekintzak	Zinemaren hiztegia
Autobusa hartu dugu Zinegelan sartu gira Lekuan jarri gira ...ren ondoan nintzen Argia itzali da Isiltasunean egon gira Filma ikusi dugu	zinegela; pantaila; aulkia; argiak; proiektagailua; proiektazalea; bozgoragailua; filma



JPhilippe Mercé



JPhilippe Mercé

2. urratsa: Albumaren hastapena lantzea

Istorioaren ulermena lantzeko desmartxa bat

OINARRIZKOAK:

LEXIKOA:

Irakasleak hiztegi berezia **helburutzat** edukitzea


Ikasleek hitz eta egiturak **lantzea**

KONTAKETA:

Ikasleak istorioa kontatzen **trebatzea**



Albumaren azala ez da erakusten!



ULERTZEA

- Hiztegia ezagutzea eta gogoan atxikitzea
- Erranaldien egiturak ulertzea eta gogoan atxikitzea
- Gertakarien kronologia ulertzea eta gogoan atxikitzea
- Pertsonaien egoera mentalak ulertzea
- Lotura kausalak ulertzea eta gogoan atxikitzea

KONTATZEA

- Gogoan atxikiak izan diren hitz eta egiturak erabiltzea
- Kontaketa espazioan eta denboran kokatzea (koadro; mugimendu; kronologia...)
- Hizkera (discours) zentzuduna ukaitea
- Pertsonaien arteko harremanak, haien ekintza eta intentzioak adieraztea
- Gertakari/pertsonaia batetik bestera diren loturak esplikatzea

PROIEKTUAREN AZALPENA

« Laster zinemara joanen gira filma baten ikustera. Filmaren inguruan ez dizuet deus erranen oraindik, sorpresa izanen da. Aldiz, istorioa ongi ulertzeko, hitz eta erranaldi berri batzuk ezagutuko ditugu aintzinetik. Filma ikusi ondotik, bakoitzak istorio osoa kontatzen ikasiko du. »

Zinemara joan aitzin sinopsia irakurtzen ahal da.

Sagu txipi bat poz- pozik dabil
basoan.

Gosetua dago eta sabela betetzeko
hurren bila joatea erabakitzen du.

Bidean, bera bezain gosetuta
dauden azeria, hontza eta
sugearekin topo egin du.

ZER GERTATUKO DA FILMEAN?

Helburua haurrei aurkeztea:

Filma ikusi aitzin, Grufaloa deitzen den istorioaren hastapena ezagutuko dugu. Lan egingen dugu, istorioa irakurtzean eta kondatzean zuek dena ongi ulertzeko.

Luzaz landuko dugu hitz berriak ongi uler ditzazuen eta bukaeran, ainitz lan egin eta, gai izanen zarete istorioa kondatzeko.

1. fasea: Hiztegia lantzea

Irakasleak helburutzat duen **hiztegi garrantzitsua** ikasleei:

- **ezagutarazi**

Tresna adibideak: filmean eta liburuan oinarrituriko pertsonaien, animalien, objektuen eta lekuen argazkiak eta irudiak (filmean eta liburuan agertzen ez direnak)

- **ulertarazi**

Tresna adibideak: mimoak, hatz jokoak, altxor jokoak

- **memorizarazi**

Tresna adibideak: erritualak, entzun xokoak, irudi karta jokoak, hatz jokoak, kantuak

2. fasea: Hitzetik erranaldira jotzea

Irakasleak, lehen bi pertsonaien - saguaren eta azeriaren - arteko elkarrizketaren egiturak ikasleei:

- **ezagutarazi:**

Tresna: Filmaren pasartearen transkripzioa: **irakasleak** saga eta azeriaren arteko elkarrizketa irakurtzen die.

- **Ulertarazi:**

Tresna adibideak: **ikasleek:** maketa eta 2 pertsonaien eskukatzea, saga eta axeriaren txontxongilo/masken erabiltzea, argazki edo irudien erabiltzea, pertsonaien ekintzen mimatzea...

- **Memorizarazi:**

Tresna adibideak: entzun xokoan irakaslearen transkripzioa entzutea, elkarrizketa txontxongilo edo masken bitartez antzeztea..



Ez da Grufaloaren ilustraziorik ematen kutxan

IRUDIEN KUTXA

Irakasleak kutxaren funtzioa azaltzen du: ***Denek zuen memorian kutxa ttipi bat irekiko duzue (alegia kutxa bat irekiz): erranen dugu Grufaloa deitzen den kutxa dela. Hor bilduko dituzue irakatsiko dizkizuedan hitz guziak.***

Garrantzitsua da hitz horien ikastea, laguntzen baitute ipuinaren ongi ulertzen.

HIZTEGIA LANTZEKO irudiak



AZERI



SAGU



BASO



AZERI ZULO



MUNSTRO



BASO SAKON ILUN

NON?



HARRI



HONTZ



SUGE



ENBOR



URMAEL



ERREKA


EGITURA: Hau ... da

EGITURA: ... n da



BAZKALDU

ZER?



LASTERKA JOAN



TIPI- TAPA
JARRAITU

[...]



AZTAPAR ZORROTZAK



BELAUN HEZURTSUA



INOZOA



BEGI LIRANJAK

NOLAKOA?



AHO IZUGARRIA

[...]

GRUFALOA Narramus desmartxaren ustiapena

GRUFALOA albuma ulertu eta kontatu

Compétence de fin de cycle 1 :

- Langage oral : Pratiquer divers usages du langage oral : raconter, décrire, évoquer, expliquer, questionner, proposer des solutions, discuter un point de vue.
- Langage écrit : Comprendre des textes écrits sans autre aide que le langage entendu.

Compétence de fin de cycle 2 :

Comprendre et s'exprimer à l'oral :

- Pratiquer avec efficacité les formes de discours attendues - notamment raconter, décrire, expliquer - dans des situations où les attentes sont explicites ; en particulier raconter seul un récit étudié en classe.
 - Conserver une attention soutenue lors de situations d'écoute ou d'interactions et manifester, si besoin et à bon escient, son incompréhension.
 - Participer avec pertinence à un échange (questionner, répondre à une interpellation, exprimer un accord ou un désaccord, apporter un complément...).
- Compréhension de l'écrit : Comprendre des textes adaptés à la maturité et à la culture scolaire des élèves

Saioa	Ibilbidea	Materiala
1	Sekuentziaren helburua : Grufaloo istorioa ulertzea eta kontatzea Helburu hau aurkeztu haurrei : <i>Grufaloo</i> deitzen den istorioa ezagutuko dugu eta aitzin lan egiten dugu, istorioa irakurtzean eta kontatzean zuek dena ongi ulertzeko. Luzaz landuko dugu hitz berriak ongi ulertzaren eta bukeran, aintz lan egin eta, gai izan zaitzeten, istorioa ulertzeko eta kontatzeko. Saioaren helburuak : - <i>Ipsuinaren</i> hastapenaren hitzegia gogoan hartzen ikastea - <i>Ipsuinaren</i> hastapenaren ezagutzea eta ongi ulertzea 1. fasea : historia lantzea eta gogoan hartzea Erran : Denek zuen memorian kutxa txiki bat idekiko duzue (alegia kutxa bat idekiz) : erranen dugu Grufaloo deitzen den kutxa dela. Hor bilduko dituzue irakatsiko ditxizuedan hitz guztiak. Garrantzitsua da hitz horien ikastea, laguntzen baitute ipsuinaren ongi ulertzen.	-Hitzen kartak (irudiak) -Kutxa bat (zapeta boata bat) KASU : kutxa ez eman albumaren azala Grufaloo ez erakusteko (ikasleen inudimena bultzatzeko) -1. eta 2. moduluen irudien diaporama -1. moduluen diaporama

1

GRUFALOA albumaren ustiapena ikasleen ulermena eta ekoizpena lantzeko

Kutxaren logoa erakutsi eta azaldu :



Erran : Irudi hau ikusiko duzuen aldi bakotx, jakinen duzue hitz edo erranmolde berriak ikusiko dituzue.

Hitzak eta egiturak : saga ; oilhan sakon iluna ; azeria- gordelekua (azeri- zuloa) ; bazkaldu ; janaria ; letaginak ; izugarria ; atzaparrak ; hortzak ; ahoa ; gogokoena ; harria ; errea ; lasterka joa ; inozoa ; ez daki

Banaka irudia erakutsi edo/ta afixatu. Galdin haurrei heien kutxan sartzea hitza errepikaraziz. Karta guztiak ikusi ondoren, bilduma egin hitz guztiaz behin eta berriz erakutsiz eta ikasleei haletan ageri dena izendatzea galdinez.

OHARRA : hitzegia lantzeko kutxaren jarduera errituen denboran proposatzen ahal da ondoko aldietan, saioa bitan zatitzeko, luzeegi ez izateko ikasleentzat. Sekuentzia joan arau, ez da beharrezkoa hitz guztiak lantzea saio bakoitzean, baizik eta barneratuak ez direnak.

2. fasea : istorioan sartzea ulertzea eta kontatzea

Lehen orrialdetan den testua pasarteka irakurrit.

Erran : Grufaloo ipsuinaren hastapena irakurriko dituzet. Baina ez dituzet ilustrazioa segidan erakutsiko. Irakurtzen dudanaren irudiak zuen gogoan agerraraziz zuhauek sortzen ahal dituzue segur naiz. Zuen gogoan marrazki bizidun baten egitea bezala da. Ondotik, albumeko ilustrazioa erakutsiko dituzet eta zuen baitakoarekin konparatzen ahaliko duzue.

Testuaren pasarteak afixatu diaporamaren bitartez :

2

GRUFALOA albumaren ustiapena ikasleen ulermena eta ekoizpena lantzeko

[...]

IKUS dokumentu osoa

GRUFALOA lantzeko Narramus desmartxaren euskarriak

GRUFALOA

1. saioa

Grufaloaren ipuinaren hastapena (azeri)



Sagu bat baso sakon ilunean ibiltzera atera zen.

Azeri batek sagua ikusi zuen, eta goxoa iruditu zitzaion.

- Nora zoaz, sagutxo marroi ? Etorri nahi duzu nire gordelekura ?

- Mila esker, azeri, baina ezin dut. Grufalo batekin geldituta nago bazkaltzeko.

- Grufalo batekin ? Zer da grufalo bat ?

- Bada, grufalo bat ! Ez al dakizu ?



[...]


3. urratsa: Pertsonaien intentzioak

Ikasleak pertsonaien lekuan ezartzen dira. Zer diote? Zer pentsatzen dute?



IKUS diaporama albuma pasarteka lantzeko

MASKAK istorioa antzezteko



Bai eta ere...

Irudiak hiztegia memorizatzeko

Pertsonaiak eta lekuak argazkitan

Albumaren ilustrazio baliagarriak

Ipuinaren grabaketa entzuteko

HAURREN IRUDIKAPENAK BILDU

Irakasleak filma bezperan, ikasleen irudikapenak biltzen ditu:

- « ***Zuen ustez, zer edo nor ote da Grufaloa?*** » (izenaren inguruan lanketa bat egin daiteke (grysli eta bufaloaren arteko nahasketa?)
- « ***Zerri buruz izanen da filma? Nortzuk izanen dira pertsonaiak?*** »

Irakasleak ikasleen proposamenak arbelean edo afixa batean idazten eta atxikitzen ditu.

- « ***Grufaloa, pentsatzen duzuen bezala itxuratu ezazue.*** »

Irakasleak arte plastikoaren bitartez Grufaloaren potreta bat egitea galdegiten die. (ekoizpenak gelan atxikitzen ditu.)

Azkenik, afixa erakutsi gabe, irakasleak filman zer gertatuko den galdinen die.



**Zinemaren esperientzia
Ikasleen iritziak biltzea
Hipotesien egiaztatzea eta ulermenaren sakontzea.
Ikasleen ekoizpenak bultzatzea.**

5. urratsa:

**Zinemaren esperientzia
Ikasleen iritziak biltzea**

6. urratsa:

**Hipotesiak egiaztatzea eta
ulermen eta ekoizpenaren desmartxa
segitzea**

7. urratsa:

Narrazioa: filmaren istorioa kontatzea

5. urratsa: Zinemaren esperientzia - Ikasleen iritziak biltzea

- **Zinemaren esperientzia:** Nola iragan da ateraldia zinemara?

Berriz lantzen da zinemaren hiztegia eta ikasleek kontatzen dute bizi izan dutena maketaren bitartez.

- **Filma:** ikasleen iritziak eta emozioak biltzea.


Ahozkoan/idatzian/marrazki edo adierazpen artistikoen bitartez

6. urratsa: Hipotesiak egiaztatzea eta ulermen eta ekoizpenaren desmartxa segitzea

- Haurren aintzineko irudikapenak eta filmari buruzko beraien iritziak parekatzea (filmaren afitxa lagun + proposamenen afitxa)
- Egiazko Grufaloa eta ikasleen itxurapenak parekatzea
- Filmaren eta liburuen arteko loturak egitea

Albumatik filmara

Afixa eta albuma:
irudien konparaketa



	Liburuaren azalean	Filmaren afixan
Titulua		
Nor dira pertsonaiak?		
Non da sagutxoa?		
Zer ikusten da bigarren planoan?		

Filmaren istorioa kondatzeko:

- Gogoan atxikiak izan diren hitz eta egiturak erabiltzea
- Kontaketa espazioan eta denboran kokatzea
(kontextua (NON? NORA?), ekintzak (ZER?), kronologia (NOIZ?))
- Pertsonaien arteko harremanak, ekintzak eta intentzioak adieraztea (NOR? NOREKIN? ZERTARAKO?)
- Gertakari eta pertsonaien arteko loturak azaltzea, bakoitzaren portaera aztertuz

PERTSONAIAK

Deskribapenak:

- Potreta (fisikoa/morala)
- Errola (intentzioak)

Kokapenak:


- Denboran
- Espazioan

Harremanak:

- Pertsonaien arteko loturak
- Pertsonaien arteko eraginak



Pertsonaiak albumean eta filmean



Azeria



Natura ezaugarria: Lore pentzea


Grufaloarekin lotura: Letagin izugarri luzeak, Erpe zorrotzak

Hortz handiak labana bezain zorrotzak

Kokapena: harri parean, udazkenean

Otordua: Azeria saltsan bazkarian

Hontza



Natura ezaugarria: adarra

Grufaloarekin lotura: Belaun hezurtsuak, aztapar zorrotzak, garatxo pozointsua sudur puntan

Kokapena: Erreka txoko bakar tokian, udazkenean

Otordua: Hontza izozkia, askarian

Sagutxo



Sugea




Natura ezaugarria: Belar luzeak, urmaela

Grufaloarekin lotura: begi horiak, mihi beltza, arantza moreak bizkarrean

Kokapena: aintzira ertzean, udazkenean

Otordua: Suge nahaskia

Grufaloa



Otordua:

Sagu biguna ogi xigortuan



URTXINTXA AMA

Saguaren istorioa kontatzen du. Oihana ongi ezagutzen du. Urren bila joaten delarik, kasu egiten du jana ez izateko. Bere haurrei istorioak kontatzea biziki maite du. Mundu liluragarria asmatzen du.



HONTZA

Sagua gomitatzen du tea hartzera bere zuhaitz puntara. Ezez erraten diolarik harrapatzen du. Baina saguak Grufaloa aipatzen diolarik beldurtzen da eta ihes egiten du.



SAGUTXOA

Oihana deskubritzen du. Azeria, hontza eta sugea topatzen dituelarik, ez jana izateko, Grufaloaren istorioa asmatzen du. Grufaloaren atzaparretan preso delarik, gaiztoa dela sinetsarazten dio. Sagu ausarta da.



SUGEA

Gaiztoa da. Ikusi orduko, sagua harrapatzen du jateko. Baina saguak Grufaloa aipatzen diolarik beldurtzen da eta ihes egiten du.



AZERIA

Biziki abila da. Uste du errexki sagua bere azeri-zulora eramaten ahalko duela. Baina saguak Grufaloa aipatzen diolarik beldurtzen da eta ihes egiten du.



GRUFALOA

Biziki handia eta azkarra da baina pixka bat zozoa. Ez da gaiztoa baina biziki gose baita, jan nahi du. Eta sagua jatea gustatzen zaio.

Ustiapenean zehar, ulermena eraikitzeke ezagutu tresna

HELBURUAK :

- Istorioaren **eskema narratiboa** ulertzea eta gogoan atxikitzea
- **Pertsonaien** arteko **harremanak** ulertzea (intentzioak eta ekintzak)
- **Gertakarien** arteko **loturak** ulertzea
- Filmaren **inplizitoa** ulertzea

Hasierako egoera

NON?

NON?

Nor?

Bukaerako egoera

Bukaerako egoera

Norekin?

Non?

Zer?

Non?

Norekin?

Zer?

Non?

Norekin?

Zer?

Norekin?

Non?

Non?

Norekin?

Zer?

ITZULERA

Norekin?

Non?

Zer?

Norekin?

Non?


Zer?

Norekin?

Non?

Zer?

Zer?



Eskema narratiboa




Animaliekin topaketak: egoera larriak




Aterabidea



Hastapeneko
egoera



Aterabideak



Bururapena



Ikasleak istorioaren **ulermen sakonera** eramatea
(esplizitutik inplizitora)

Pertsonaien intentzioak lantzea filmaren eta albumaren elementuak
konparatuz

Azeriak sagua bere azeri-zulora gomitatzen du.



Zer pentsatzen du saguak?



Nora zoaz, sagutxo marroi ?
Etorri nahi duzu nire
gordelekura ?





SAGUA: - Azeri errea da haren janari gogokoena.



Hontzak sagua bere zuhaitz puntara gomitatzeko, tea hartzeko.



Nora zoaz, sagutxo marroi ?
Zatoz tea hartzera nire
etxera, zuhaitzaren puntara.



Zer pentsatzen du saguak?





SAGUA: - Hontz-izozkia da haren janari gogokoena.



Sugeak sagua bere enborrera gomitatzen du.



Zatoz nire enborrera
otordu eder bat egitera.

Zer pentsatzen du saguak?





SAGUA: - Suge-tortilla da haren janari gogokoena.





Grufaloak saguak jatea maite du.



Zer pentsatzen du saguak?



Nire janari gogokoena!
Goxo-goxo egongo zara ogi
artean!

Zer pasatzen da eszena honetan? Zer erraten dute?





Zerendako beldurtuak dira?





Filmaren hastapeneko irudiak beldurgarriak dira.
Basoan Grufoaren gorputz azalak agertzen dira...
Zein dira?



LUZAPENAK

Ulermenean eta kontaktan urrunago joateko, gai berdinak aipatzen dituzten beste liburuekin loturak egin:

BELDURRA:

- **Otsoaren ipuina** (Véronique Caplain, Grégoire Mabire, Ttarttalo, 2015)
Aker aita liburu bat irakurtzen ari zaie bere bi antxumeei. Otso bati buruzko ipuin beldurgarria da, eta aitak etengabe lasaitu behar ditu : "Gure basoetan ez dago otsorik". Baina... egia ote ?
- **Munstro bat ohe azpian** (Angelika Glitz, Imke Sönnichsen, Ttarttalo, 2005)
Willik badaki ziur bere ohe azpian munstro bat dagoela... Oraindik ez du ikusi, baina badaki han dagoela. Gau batean hots bat entzuten du, eta garrasi egin du zeharo beldurturik: Amaaaaaaaaaaaaaa!
- **Hartza ehizatza goaz** (Michael Rosen, Helen Oxenbury, Pamiela, 2013)
Aita batek eta haren lau seme-alabek abentura zirraragarri bati ekin diote belardi batean zehar, ibai baten bestaldean, baso batean barrena... harik eta leize batera iritsi diren arte; han hartz bat agertu zaie eta izututa etxera bueltatu dira aurretik egindako bidea atzera ibiliz.

MUNSTROAK:

Piztiak bizi diren lekuan (Maurice Sendak, Kalandraka, 2000)

Gure hurbilean daukagu mundu miresgarri bat, eta hartan bizi dira, eguneroko zeregin arruntetatik urrun, piztia xelebren batzuk...

Munstroek ere pixa egiten dute ohean (Pello Añorga, Jokin Mitxelena, Pamiela, 2015)

Album honetan, neska bat da protagonista nagusia, eta gustatuko zaio munstroen lurraldera joatea, eta, munstroak lagun, munstrokeriak egitea.



nire zineskola liburuxka



Zure irakaslearekin
Zineskola dispositiboan
parte hartuko duzu
eta euskarazko filmak
ikusiko dituzu.
Liburuxka hau, zure
bidai liburuxka bezala
betetzen ahalko duzu,
oroitzapen goxoen
atxikitzeko.

Izen eta abizena

Eskola / Ikastola

Gela

Ikasturtea




Zein emozio senditu duzu film hau ikustean?




haserrea




harridura




poza



pena



jakin-mina



beldurra

Beste

Nola zen ikusi duzun filma?



irringarria



luzea



berezia



lasaia




ederra



korapilatsua



Gure munstroen liburuxka
bat sor dezagun!



André Breton, Jacqueline Lamba eta Yves
Tanguy , joko surrealista batean ekoiztutako
kolageak, 1938

1- IRUDI BANKU BATEAN:

- a) Buru bat hauta ezazue
- b) Besoak, patak edo/ta gorputz adar bat
- c) Zangoak
- d) Oinak

2- Ikasleek kolatu behar dituzte liburuxkan

3- Margotu

4- Moztu

5- Jolastu